

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu maiatzaren 28tik ekainaren 3ra bitarteko asterako*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 28

[Aste honetako programazioa](#) ondorengo da: Nafarroako Liburutegiak "La espiritualidad de Ety Hillesum" hitzaldia hartuko du, María José Aranaren eskutik, astelehenean; topaketa zinegile nafar Helena Tabernarekin, asteartean; eta "Kamishibai: ipuin tradizional japoniarrak" ipuin-kontalari saioa, gaztelaniaz, asteazkenean.



Hurrengo ostegunean, maiatzaren 31n Think Tank zikloaren bigarren saioa eskainiko da.

Zineak ondokoak ekarriko dizkigu Nafarroako Filmotekara: "Trenes rigurosamente vigilados", Jirí Menzelena, asteazkenean; "Acantilado", Helena Tabernarena, ostegunean; eta "Luz oscura" eta "THX 1138" (George Lucas), ostiralean.

Musikaren hitzordua astelehenean izango da, Nafarroako Liburutegian, Pablo Sarasate Big Band eta Pamplona Swing taldeen eskutik, eta ostegun eta ostiralean, Baluarten, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin.

Prestakuntza Javier Espinosak ekarriko du, THINK TANK zikloaren bigarren saioaren eskutik ("Ekipamenduak birpentsatuz"), ostegunean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. Halaber, Huarte Zentroak eta Nafarroako Filmotekak "Gatazka-irudien inguruko hausnarketak" mintegia hartuko dute, ostiral eta larunbatean. "Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak" eta "Komisariotza-ikerketaren inguruko egoitza" tailerrak oraindik egiten ari dira, Huarte Zentroan biak. Eta Karlismoaren Museoak "El robo del Toisón" izenburuko escape room delakoa proposatzen du.

Erakusketei dagokienez, ondokoak daude oraindik ikusgai: "Gamazadaren 125. urteurrena", "Incurvar", eta "En abierto – Zabalik: NUParen 30 urteei buruzko erakusketa".

Bukatzeko, bisita gidatuak antolatu dira "Incurvar" erakusketara (azken egunak baitira) eta katedraleko klaustroko lanetara. Eta aurrera darrai Museoen Zerbitzuak bultzatutako "Pasaporte: Museatu! eta bidaiatu" kanpainak.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa: